

## EUSKAL POLIZIAREN OINARRIZKO ESKALAKO AGENTEA


### 1. Lehenengoa.- Deialdiaren xedea

- a. **Ertzaintzaren** kidegoan **700** plaza eta **Udaltzaingoa** **51** plaza, honakoen arabera:
- b. **Deialdiko plaza-kopurua handitu ahal izango da**, prozesuan parte hartzen duten erakundeetan hautaketa-prozesu hau garatzen ari den bitartean edozein arrazoiengatik sortzen diren Euskal Polizia-agenteen kategoriako lanpostu hutsen arabera.
- c.

### 2. Bigarrena.- Parte hartzeko baldintzak.

- a. **Aldez aurretiko** eskaera egitea.
- b. Espainiako **nazionalitatea** izatea.
- c. 1,65 metroko **altuera** izatea gizonek eta 1,60 metrokoa emakumeek.
- d. **18 urte izatea** eta **38 urte bete ez izana**, Muga hori konpentsatu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoetan emandako zerbitzuekin.
- e. **Batxilergoko titulua** edo baliokidea izatea, edo goragoko beste edozein.
- f. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan agertzen den **osasan-bazterketen** taulan sartuta ez egotea.
- g. Dolozko delituagatik kondenatua ez izatea, Administrazio Publikoaren zerbitzutik bananduta ez egotea, eta **funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea**.
- h. Eskatzailearen adierazpenaren bidez, armak eramateko eta, hala badagokio, erabiltzeko konpromisoa hartzea.
- i. **Falta astuna edo oso astuna** egiteagatik **Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoren** batean sartzeko hautaketa-prozeduratik kanpo ez egotea.
- j. Indarrean dagoen araudian aurreikusitako **ezgaitasunaren** legezko kausaren batean sartuta **ez egotea**, praktiketako funtzionario izendatzeak ondorioak dituen unean.
- k. Honako **gidabaimenak** izatea:
  - Deitutako plaza guztietarako:

B motako baimena, turismoentzat, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean




- A1 motako baimena, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean indarrean dagoena:
  - Hondarribia
- A1 motako baimena, karrerako funtzionario izendatu aurretik indarrean dagoena:
  - Azkoitia
  
- A2 motako baimena, epaimahaiak plazak behin-behinean esleitzeko eskabideak aurkezteko epea ireki aurreko egunean indarrean dagoena:
  - Donostia-San Sebastián.
  - Irun
  - Portugalete
  
- A2 motako baimena, karrerako funtzionario izendatu aurretik indarrean dagoena:
  - Basauri
  - Laudio-Llodio
  - Tolosa
- A motako baimena, epaimahaiak plazak behin-behinean esleitzeko eskabideak aurkezteko epea irekitzeko adierazitako egunaren aurreko egunean indarrean dagoena:
  - Vitoria-Gasteiz
- C1 motako baimena, karrerako funtzionario izendatu aurretik indarrean dagoena:
  - Azkoitia
  
- E motako baimena, karrerako funtzionario izendatu aurretik indarrean dagoena:
  - Hondarribia
  - Tolosa

l) Derrigortasun-data igarota duten plazak eskuratu nahi dituztenek 2. hizkuntza-eskakizuna edo hortik gorakoa izatea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Hautaketa-prozesu honetako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proben emaitzak argitaratzen diren egunean bete behar da baldintza hori.

m) Eskabidea jaso eta aztertzeagatik tasa ordainduta izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legean adierazitakoaren arabera, 3.2 oinarrian xedatutakoaren arabera.

**TASA: 15,41 euro**



### 3. Hirugarrena.- Eskaerak aurkeztea.

- a. **Eskabideak** Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren **webgunean egongo dira** eskuragarri:

**[www.arkauteakademia.net](http://www.arkauteakademia.net)**.

- b. **Epea: 20 EGUN BALIODUN ARTE, OINARRIAK ARGITARATZEN DIRENETIK ZENBATZEN HASITA** (larunbatak, igandeak eta jaiegunak ez dira egun baliodunak).

(Epea urtarrilaren 12ko 00: 00etan hasi eta otsailaren 8ko 24: 00etan amaituko da)

### 4. Laugarrena.- Hautaketa sistema: OPOSIZIO-LEIHAKETA

### 5. Bosgarrena.- Oposizioa:

Jarraian, proba hauek egingo dira:

- a. **Lehen proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, proba psikoteknikoa, **gaitasunak** ebaluatzeko. Proba hau **0 eta 120 puntu** artekoa izango da. Proba honek **lau ariketa** izango ditu, guztiak nahitaezkoak eta baztertzailak:


- a) Arrazoitze-ariketa.
- b) Pertzepzio-gaitasunak lantzea (identifikazioa, bereizketa...)
- c) Gaitasun espazialak erabiltzea.
- d) Ahozko gaitasunak lantzea.

Proba gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortu beharko dira lau ariketetan, eta gutxienez 60 puntu lau ariketen batuketan.

- b. **Bigarren proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, **ezagutza-proba** (test mota). Proba hau **0 puntutik 150 puntura** baloratuko da, eta gutxienez 75 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira. Edukiak gai-zerrendan, 1. Eranskinean agertzen direnak, jasotakoaren arabera zehaztuko dira.

- c. **Hirugarren proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, proba **psikoteknikoa**. Proba hau **0 eta 150 puntu** artekoa izango da. Bigarren proba horrek **bi ariketa** izango ditu, biak nahitaezkoak eta baztertzailak:

- a) Nortasun-testa egitea, **nortasun-ezaugarri orokorrak** ebaluatzeko, bai eta hautaketa-prozeduran parte hartzen dutenen **desoreka- edo egokitzapen-adierazleak** ebaluatzeko ere. Ariketa honetan **0 eta 100 puntu** artean emango dira, eta gutxienez 50 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.



- b) **lan-jarduerarekin lotutako jokabideak** neurtzera bideratutako nortasun-testak egitea. Ariketa hau **0 puntutik 50era** bitarteko balioespenarekin baloratuko da, eta gutxienez 25 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.

d. **Laugarren proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, gaitasun fisikoko proba. Proba hau **0 eta 80 puntu** artekoa izango da. **Lau ariketak** egingo dira. Proba hau gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortu beharko dira proba osatzen duten lau ariketetako bakoitzean, eta gutxienez 40 puntu lau ariketen batuketan:

- Igeriketa, 50 metro libre
- Aulkiko pressa
- Bizkortasun testa
- Course-navette

e. **Bosgarren proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, **elkarrizketa pertsonala**, izangaiek deitutako lanpostuaren lanbide-profilaren eginkizunak eta zereginak betetzeko duten jokabide- eta gaitasun-egokitasuna zehazteko. Proba hau **0 eta 50 puntu artean** baloratuko da, eta gainditzeko gutxienez 25 puntu lortu beharko dira.


## **6. Seigarrena.- Lehiaketa**

Merezimenduak baloratuko dira, **200 puntu** arte, baremazio honen arabera:

- **Titulazio eta diploma ofizialak** baloratuko dira, eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak hala aitortutakoak soilik hartuko dira halakotzat.

Gehienez 60 puntu emango zaizkie, baremo honen arabera:

- a) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 1. mailan (Kualifikazioen Europako Esparruko 5. maila) kokatutako titulazio ofizial bakoitza 10 punturekin baloratuko da.
- b) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 2. mailan (Kualifikazioen Europako Esparruko 6. maila) kokatutako titulazio ofizial bakoitza 30 punturekin baloratuko da.
- c) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 3. mailako edo goragoko titulazio ofizial bakoitza (Kualifikazioen Europako Esparruko 7. maila edo goragokoa); 40 puntu emango dira.
- **Ingelesa, frantsesa eta alemana** jakitea. Balio akademikoa duten tituluak emateko legez gaitutako ikastetxeek emandako ziurtagiri ofizialaren bidez hizkuntza horien ezagutza agiri bidez egiaztatzea baloratuko da. **Gehienez 60 puntu** emango dira, honako xehetasun eta maila hauen arabera)



a) Tarteko maila (Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B2 edo baliokidea): 20 puntu hizkuntza bakoitzeko

b) Maila aurreratua (Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko C1 edo goragoko maila edo baliokidea): 30 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntza berak ezin izango du balorazio bat baino gehiago eragin; beraz, mailarik altuena duena bakarrik hartuko da kontuan.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoko kidegoetan edo Ertzaintzan Oinarrizko Eskalako agente gisa emandako zerbitzuak:** 0,05 puntu, emandako zerbitzu-egun bakoitzeko; 80 puntu, gehienez.

Emandako zerbitzuak egiaztatzeko, dagokion administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da (Herri Administrazioan Aldez Aurreko Zerbitzuak Aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I. eranskineko eredua).

Eskabidean merezimenduei buruzko atal zehatz eta bereizi bat dago.

Eskabidearen atal horretan alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak ezin izango dira inola ere baloratu edo kontuan hartu.

## **7. Zazpigarrena.- Euskararen ezagutzaren balorazioa.**

Agiri bidezko egiaztapena, baita proba espezifikoaren bidezkoa ere.

**B-2 hizkuntza-eskakizuna duten eta **derrigortasun-data igarota** duten lanpostuak lortzeko hautagaiak baremo honen arabera baloratuko dira:**


- Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **C-1 mailako** edo goragoko mailako euskararen ezagutza: **80 puntu**.

**B-2 hizkuntza-eskakizuna duten eta **derrigortasun-data igaro gabe** duten lanpostuak lortzeko hautagaiak baremo honen arabera baloratuko dira:**

- Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **C-1 mailako** euskararen ezagutza: **80 puntu**.
- Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **B-2 mailako** euskararen ezagutza: **60 puntu**.

## **8. . Zortzigarrena.- Praktiketako funtzionarioak izendatzea.**

Deitutako plaza-kopuruaren arabera hautatutako pertsonak **praktiketako funtzionario** izendatuko dira, baldin eta deialdiaren baldintzak betetzen dituztela behar bezala egiaztatu badute. Ondoren, honako hauek egin behar dira:



**A. Prestakuntza-ikastaroa**

**B. Praktika-aldia**

---